



*Bigarren Lehendakariordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailburua
Vicepresidente Segundo y Consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2025EKO URTARRILAREN 29KOA, ZEINAREN BIDEZ ZUZENTZEN DEN BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUAREN 2025EKO URTARRILAREN 21EKO AGINDUA, HEZKUNTZA SAILEKO UNIBERTSITATEZ KANPOKO HEZKUNTZA PUBLIKOKO IKASTETXEETAKO, SUKALDE ETA GARBIKETA ZERBITZUKO ETA HAURRESKOLAK PARTZUERGOKO HAUR-ESKOLETAKO LANGILEEI DEITUTAKO GREBAN GIZARTEARENTZAKO EMAN BEHAR DIREN EZINBESTEKO ZERBITZUAK MANTENDUKO DIRELA BERMATZEN DUENA.

2025eko urtarrilaren 22, 23, 28, 29, 30 eta 31n deitutako greban eta 2025eko otsailaren 12, 13, 19, 20, 26 eta 27an, lanaldi osoan, Hezkuntza Saileko unibertsitatez kanpoko Hezkuntza Publikoko Ikastetxeetako, sukalde eta garbiketa zerbitzuko eta Haurreskolak partzuergoko haur-eskoletako langileek komunitateari ematen dizkioten ezinbesteko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzen duen 2025eko urtarrilaren 21eko Aginduan honako akats material hauek antzeman dira:

Hala adierazten ebazpenaren lehenengo zatiko b) atalak honako hau dio:

“1. Garbiketako langileak. Egunero zoruak, piletak, komunak eta bainuak garbituko dira, eta hondakin organikoak bildu eta kenduko dira.

Lan horiek zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen % 50ek egingo dituzte, eta ez dute inoiz eguneroko lanaldia baino lanaldi luzeagoa izango. % 50 pertsona 1 baino gutxiago bada, ezarritako gutxieneko zerbitzua egitera deituta dago; pertsona 1 baino gehiago bada, baina 2 baino gehiago ez badira, gutxieneko zerbitzuak eman behar diren denbora zehazteko kalkulua zerbitzuko langileen ohiko lanaldia kontuan hartuta egin beharko da.”

Eta hau adierazi beharko luke:

“1. Haur hezkuntzako ikastetxeetako eta hezkuntza bereziko ikastetxe espezifiketako garbiketako langileak. Egunero zoruak, piletak, komunak eta bainuak garbituko dira, eta hondakin organikoak bildu eta kenduko dira.

Lan horiek zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen % 50ek egingo dituzte, eta ez dute inoiz eguneroko lanaldia baino lanaldi luzeagoa izango. % 50 pertsona 1 baino gutxiago bada, ezarritako gutxieneko zerbitzua egitera deituta dago; pertsona 1 baino gehiago bada, baina 2 baino gehiago ez badira, gutxieneko zerbitzuak eman behar diren denbora zehazteko kalkulua zerbitzuko langileen ohiko lanaldia kontuan hartuta egin beharko da.”

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

LEHENENGOA.- Adierazitako Gutxieneko Zerbitzuei buruzko 2025eko urtarrilaren 21eko Aginduaren ebazpenaren lehenengo zatiko b) atala aldatzea, eta honela idaztea:

Ebazpenaren lehenengo zatiko b) atala: *“1. Haur hezkuntzako ikastetxeetako eta hezkuntza bereziko ikastetxe espezifikotako garbiketako langileak. Egunero zoruak, piletak, komunak eta bainuak garbituko dira, eta hondakin organikoak bildu eta kenduko dira.*

Lan horiek zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen % 50ek egingo dituzte, eta ez dute inoiz eguneroko lanaldia baino lanaldi luzeagoa izango. % 50 pertsona 1 baino gutxiago bada, ezarritako gutxieneko zerbitzua egitera deituta dago; pertsona 1 baino gehiago bada, baina 2 baino gehiago ez badira, gutxieneko zerbitzuak eman behar diren denbora zehazteko kalkulua zerbitzuko langileen ohiko lanaldia kontuan hartuta egin beharko da.”

BIGARRENA.- Gainerakoan, indarrean jarraituko du 2025eko urtarrilaren 21eko Bigarren Lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu Sailburuaren Aginduak.

HIRUGARRENA.- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke organo honen aurrean, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Era berean, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duenez, horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen,

MIGUEL TORRES LORENZO
BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA
EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA